

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Astelehenean zabalduko da Nafarroako Gobernuak antolatutako helduentzako euskara-ikastaroetan izena emateko epea

*2015-16 ikasturteko eskaintza jendearentzako eta irakasleentzako prestakuntza-jarduerekin osatzen da Zubiarte euskaltegian eta Euskarabidean*

Viernes, 22 de mayo de 2015

Datorren astelehenean, maiatzak 25, zabalduko da [Nafarroako Gobernuak 2015-2016 urterako antolatutako helduentzako euskara-ikastaroetan izena emateko epea](#). Aurrez aurreko eta autoikaskuntzako ikastaroak eskaintzen dira, maila guztietan, jende guztiarentzat eta unibertsitatekoak ez diren irakasleentzat Euskarabidean eta Zubiarte euskaltegi publikoan.

Izena hautatutako zentroan eman behar da, Euskarabidean (Bartolomé de Carranza kalea, 5, Iruña) edo Zubiarte euskaltegi publikoan (Zubiarte kalea, 13, Huarte).

[Euskarabideak](#) 20 eguneko ikastaro trinkoak eskaintzen ditu, astean 26 ordukoak, maila guztietan (A1, A2, B1, B2 y C1), astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:30era, bai eta 7 ordu eta erdiko ikastaro luzeak ere astean A1.1, A1 eta A2 mailetan (astelehenetik ostiralera 07:30etik 09:00etara); astean 6 ordukoa maila guztietan (astelehen eta asteazken edo astearte edo ostegun 09:00etatik 12:00etara, 13:00etatik 16:00etara eta 16:00etatik 19:00etara), eta astean EGA azterketa prestatzeko 6 orduko ikastaroa (astelehen eta asteazken edo astearte eta ostegun 09:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 19:00etara).

Gainera, autoikaskuntzako ikastaroak eskaintzen ditu administrazioetako zerbitzura dauden langileentzat. Tutoreak dituzten ikastaroak dira, maila guztietan, haietan ikasleak tutoreak agindutako zereginak egin behar ditu, eta aurrez aurrez egin beharreko ordubeteko elkarrizketa-saio batera joan astero, bai eta zuzenketak egiten diren ikastaroak ere, baina elkarrizketa-saiorik gabe.

[Zubiarte euskaltegi publikoak](#) ere maila guztietako ikastaroak eta EGA eskaintzen ditu ondorengo modalitateetan: autoikaskuntza, astean bi ordu eta erdiko elkarrizketa-saioarekin eta online bidezko 4 orduko konpromisoarekin gutxienez; astean bi egunez 4 eta 5 orduko aurrez aurreko ikastaroak astelehen eta asteazken edo astearte edo ostegunaren artean aukeratu beharrekoa; astean 6 orduko ikastaroak, hiru egunetan banatuta, gurasoentzat eta ikastetxeetan A1, A2, B1 eta B2 mailetan, eta jende guztiarentzat eguerdian, eta astean 8 eta 10 orduko ikastaroak eskolak astelehenetik ostegunera emanaz, 09:15etik 11:45era, 17:00etatik 19:30era eta 19:30etik 21:30era. Gainera, EGA azterketa

prestatzeko ikastaro trinkoa egitea aurreikusita dago, irailaren 2tik 30era.

Ikastaroetako prezioak bakoitzaren modalitate eta orduen arabera dira.

[Unibertsitatekoak ez diren irakasle](#)ek aurreko ikastaroak egin ahalko dituzte, beren prestakuntzaren zati modura, eskolaz kanpoko ordutegian eta doan.